



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko uztailaren 26a

4. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Batzorde Irankorraren osaera (2. or.).
- Mahaiaren 2002ko abenduaren 16ko erabakiaren 1. eta 2. apartatuak aldatzea, zeinen bidez talde parlamentarioak laguntzailez hornitzen baitira (2. or.).
- Deialdia, oposizio bidez Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikari izateko bost lanpostu huts bete daitezzen (horietako baterako euskaraz jakin behar da). Izendapen-proposamena (3. or.).
- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez eta txanda murriztuan betetzekoa. Bete gabe gelditu da (4. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Batzorde Irankorraren osaera.

Legebiltzarreko lehendakariak –Batzorde Iraunkorreko lehendakari gisa arituko dena–, Parlamentuko Mahaiko kideek eta Eledunen Batzarreko kideek eta haien ordezkoez osatuko dute Legebiltzarreko Batzorde Iraunkorra. Hona hemen:

Unai Hualde Iglesias jauna, Parlamentuko lehendakaria.

María Inmaculada Jurío Macaya andrea, lehen lehendakariordea.

Yolanda Ibáñez Pérez, bigarren lehendakariordea.

Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia, lehen idazkaria.

Maiorga Ramírez Erro, bigarren idazkaria.

Navarra Suma talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jauna eta haren ordezkoez: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jauna eta José Suárez Benito jauna.

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun María Victoria Chivite Navascués andrea eta haren ordezkoez: Ramón Alzórriz Goñi jauna, Ainhoa Unzu Garate andrea eta Carlos Gimeno Gurpegui jauna.

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Uxue Barkos Berruezo andrea, eta haren ordezkoez: Koldo Martínez Urionabarrenetxea jauna, María Roncesvalles Solana Arana andrea eta Pablo Azcona Molinet jauna.

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren eledun Bakartxo Ruiz Jaso andrea eta haren ordezkoez: Adolfo Araiz Flamarique jauna, Laura Aznal Sagasti andrea eta Patricia Perales Hurtado andrea.

Nafarroako Ahal Dugu foru parlamentarien elkartearen eledun Mikel Buil García jauna eta haren ordezkoez: Ainhoa Aznárez Igarza andrea.

Izquierda-Ezkerra Talde Mistoaren eledun María Luisa de Simón Caballero andrea.

Mahaiaren 2002ko abenduaren 16ko erabakiaren 1. eta 2. apartatuak aldatzea, zeinen bidez talde parlamentarioak laguntzailez hornitzen baitira.

Nafarroako Parlamentuko Batzorde Iraunkorraren Mahaiak, 2019ko uztailaren 18an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Mahaiak, 2019ko uztailaren 1ean hartutako erabakiaren bidez, eratzat deklaratu du Ahal Dugu Nafarroa foru parlamentarien elkartea, eta halaber baimena eman du Talde Parlamentario Mistoaren eratzeko, "Izquierda-Ezkerra Talde Misto" izenpean eta kide bakar batek osatuta.

Talde parlamentarioak laguntzailez hornitzeko Mahaiaren erabakiaren testu indardunarekin,

Talde Parlamentario Mistoak ez dauka bere parlamentu-eginkizunak aurrera eramateko laguntza parlamentariorik.

Horregatik, Izquierda-Ezkerra Talde Mistoaren eledunak eskatu du Legebiltzarreko Mahaiak beharrezkoak diren prozedurak balia ditzala talde horrek laguntzaile parlamentarioa izan dezan, halatan bete ahal izan ditzan foru parlamentariari eta talde parlamentarioei esleitzen zaizkien eginkizunak bere ordezkartasun, partaidetza eta ekin-tza parlamentarioko zereginetarako beharrezkoak eta nahikoak diren bermeekin.

Izquierda-Ezkerra Talde Mistoaren eledunak azaldutakoa ase ahal izatearren eta talde parlamentario horren lanen betetze egoki eta eraginkorra bermatzearen, beharrezkoa gertatzen da Mahaiaren 2002ko abenduaren 16ko erabakia aldatzea, zeinaren bidez laguntzailez hornitzen baitira talde parlamentarioak.

Horrenbestez, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 35.1. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

Lehena. Mahaiaren 2002ko abenduaren 16ko erabakiaren 1. eta 2. apartatuak aldatzea (5. NPAO, 2003ko urtarrilaren 28a), jarraian adierazi bezala gera daitezten:

“1.- Talde parlamentarioak eta Talde Mistoaren barrenean eratzen diren foru parlamentarien elkar-teak laguntzaile batez hornitzea haiek osatzen dituzten bost parlamentari edo zatiki bakoitzeko. Talde Parlamentario Mistoak laguntzaile bat izanen du betiere.

2.- Nafarroako Parlamentuko Lehendakariak izendatuko ditu talde parlamentario edo foru parlamentarien elkarte bakoitzari dagozkion laguntzaileak, kasuko eledunak proposatuta, eta haien araubide juridikoa izanen da Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 3. artikuluan ezarritzen dena.

Talde Parlamentario Mistoari dagokion laguntzailearen izendapena egingen da talde horren kide guztiek aho batez eginiko proposamenari jarraiturik. Proposamen hori ez bada hogeit eguneko epean egiten, izendatuko da talde horren kideen gehiengoak proposatzen duena”.

Bigarrena. Erabaki honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean hartuko du indarra.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2019ko uztailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Deialdia, oposizio bidez Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikari izateko bost lanpostu huts bete daitezten (horietako baterako euskaraz jakin behar da).

Izendapen-proposamena

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren 2018ko abuztuaren 21eko Ebazpenaren bidez, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikari izateko bost lanpostu huts (horietako baterako euskaraz jakin behar da) oposizio bidez betetzeko deialdia onetsi zen. Deialdia 2018ko 175. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, irailaren 10ekoan, eta 2018ko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, irailaren 10ekoan, argitaratu zen. Deialdia bukatuta, eta haren 7.2 oinarrian ezarritakoari jarraikiz, kalifikazio-epaimahaiak ondoko erabaki hauek jakinarazten ditu:

Lehena.– Deialdiaren 7.2 oinarrian aurreikusitakoa betez, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariari igortzen zaio auditoretzako teknikari lanpostuetarako izendapen proposamena, oposizioa gainditu duten honako izangai hauena (bakoitzaren puntuazioa adierazi da):

Txanda irekia (gaztelaniaz):

- 1.- Echarte Zambrano, Maite: 75,31 puntu
- 2.- García Logroño, José Javier: 71,70 puntu
- 3.- Caños Hernández, Daniel: 70,13 puntu
- 4.- García Cascante, M.^a Esperanza: . 66,02 puntu

Txanda irekia (euskara):

- 1.- Ondarra Erdocia, Rosario: 69,00 puntu

Bigarrena.– Igoera txandako bi lanpostuak bete gabe gelditu direnez, txanda irekiko lanpostuei gehituko zaizkie.

Hirugarrena.– Kontuen Ganberako lehendakariari igortzen zaio honako hauek auditoretzako teknikari izendatzeko proposamena: Maite Echarte Zambrano, José Javier García Logroño, Daniel Caños Hernández eta M.^a Esperanza García Cas-

cante, txanda irekikoak, eta Rosario Ondarra Erdocia, euskarazko txanda irekikoa, izangai horiek eskuratu baitituzte puntuazio handienak.

Aditzera ematen da oinarri horretan xedatutakoarekin bat.

Iruñean, 2019ko uztailaren 2an

Epaimahaiburua: Karen Moreno Orduña

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez eta txanda murriztuan betetzekoa.

Bete gabe gelditu da

Lehendakari honek 2018ko urriaren 15ean emandako Ebazpenaren bidez, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez eta txanda murriztuan betetzeko deialdia onetsi zen. Deialdiaren testua Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2018ko azaroaren 6an.

Kalifikazio epaimahaia eratu ondoren eta lehiaketaldia baloratu ondoren, 2019ko ekainaren 4an oposizioaldiko lehenengo ariketa egin zen, non kontabilitate publiko eta pribatuko zenbait kasu ebatzi behar baitziren. Ekainaren 12an, kalifikazio epaimahaiak probaren emaitza argitaratu zuen: aurkeztutako izangaiak ez zuen lortu ariketa gainditzeko eskatutako gutxieneko puntuazioa.

Horrenbestez, deialdiaren oinarriekin bat, epaimahaiak, 2019ko ekainaren 24an, proposatu du lanpostua bete gabe gelditu dela deklaratzeko, izangai bakar batek ere ez baitu gainditu proze-

sua. Hortaz, lehendakaritza honek, dagozkion ahalmenak eta eskumenak erabiliz,

EBAZTEN DU:

Lehena.– Deklaratzea bete gabe gelditu dela Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez eta txanda murriztuan betetzeko deialdia, lehendakari honen 2018ko urriaren 15eko Ebazpenaren bidez onetsi zena, izangai bakar batek ere ez baitu gainditu oposizioaldiko lehenengo ariketa.

Bigarrena.– Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta erakundearen webgunean argitara dadila agintzea, eta, orobat, Kontuen Ganberako idazkari nagusiari jakinaraztea, haren berri izan dezan.

Iruñean, 2019ko ekainaren 26an

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria:
Asunción Olaechea Estanga